

BAZTAN HARANAREN ORDENANTZA, ZERGA ETA PARAMENTU BERRIAK

Baztango Batzar Nagusiak, 2009ko urriaren 28an egin aparteko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Baztan Haranaren Ordenantza, zerga eta paramentu berrien proiektuaren testua. Hasierako onespeneren erabakia 2010eko 8. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urtarrilaren 18an. Jendaurreko aldian aurkeztutako alegazioak ebatzita, Baztango Batzar Nagusiak, 2011ko urtarrilaren 3an egindako ohiko bilkuran, behin betiko onetsi zituen Baztan Haranaren Ordenantza, zerga eta paramentu berriak.

Baztan Haranaren Ordenantza, zerga eta paramentu berriak 2011/01/26ko 17. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

2014ko urtarrilaren 2an Baztango Batzar Nagusiak egindako ohiko bilkuran, Baztan Haranaren Ordenantza, zerga eta paramentu berrien 18. eta 93. artikuluen aldaketa hasiera batean onestea erabaki zen. Horren iragarkia 2014ko 20. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urtarrilaren 30ean. Jendurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza horretan egin aldaketa behin betiko onetsi zen. Aldaketa 2014/04/22ko 77. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2014ko urriaren 1ean Baztango Batzar Nagusiak egindako ohiko bilkuran, Baztan Haranaren Ordenantza, zerga eta paramentu berrien 42. eta 47. artikuluen aldaketa hasiera batean onestea erabaki zen. Horren iragarkia 2014ko 205. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 20an. Jendurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza horretan egin aldaketa behin betiko onetsi zen. Aldaketa 2014/11/26ko 232. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Jarraian, Baztan Haranaren Ordenantza, zerga eta paramentu berrien testu osoa, eginiko aldaketak eta guzti, ematen da argitara.

BAZTAN HARANAREN ORDENANTZA, ZERGA ETA PARAMENTU BERRIAK

ZIOEN AZALPENEA

Udalerrri bakarria osatzen duten hamabortz herrietan barreiaturik dauden 8.100 biztanle dituela, Baztan haranak antolakuntza administratibo tradizionala (unibertsitate araubidekoa) mantendu du, Udalak, Batzar Nagusiak eta 15 herrietako batzarrek osatua, Nafarroako Toki Administrazioaren Araubideari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 9. artikulua xedatzen duenaren arabera.

Batzar Nagusiak Haraneko etxean du egoitza, Elizondon, eta Baztan haranaren ordenantza orokorrak onesteaz arduratzen da, indarra duen legezko esparruari eta Nafarroako foru zuzenbidearen hastapenei jarraikiz.

Herrietako alkateek (juratuek), Udalak eta Batzar Nagusiak berak behin eta berriz egindako eskaeren ondoren, 2008ko urrian Baztan haranaren ordenantza, zerga eta paramentuak gaurkotzeari ekin zitzaion. Metodologia parte-hartzailea izan da eta bertan esku hartu dute Batzar Nagusiko kideek, alderdi politiko eta Baztango jendartearen hainbat sektoretako ordezkariak, bai eta adituek ere. Aldizkako bilerak egin dira eta horretarako kontrataturiko aholkulari espezializatu baten laguntza teknikoa izan dute.

Baztan haranaren ordenantza, zerga eta paramentu berriak gaurkotzeko lanaren xede nagusia izan da dokumentu arauemaile eguneratua, Batzar Nagusiko kideek eta Baztango bertze sektore batzuek adostua eta iraunkortasunari jarraikiz idatzia izatea, hau da, Baztan haranaren ingurumen, ekonomia eta gizarte errealitatearen arabera.

Lanaren bertze xede espezifikoa, hauek izan dira:

-Haranaren interes orokorrak interes partikularren gainetik defendatzea.

-Batzar Nagusiari gaurko eskaera sozialen arabera dokumentu arauemaile ematea.

-Batzar Nagusiaren eginkizuna bizkortu eta indartzea, haraneko ingurumenaren eta bere mendi eta herri ondarearen administrazioaren zainzaile eta kudeatzaile den aldetik, haiek Baztango lurraldearen %80tik goiti baitira, Nafarroako Foru Komunitaterako benetako birika, eta auzoko guztiek aprobetxatzen baitituzte.

-Batzar Nagusiaren eskumenak finkatzea eta bere eginkizun eta lanak duintzea, batzarreak bizkortzea eta auzolanak bulkatzea.

-Udal kudeaketa parte-hartze aktiborako tresna probetxugarri eta eraginkor batez hornitzea, antolaketa administratibo bereziaren araberakoa.

-Auzokoei erantzun eraginkorragoa ematea herrilurrak erabiltzeko dauden eskaerei dagokienez.

Ordenantzen gaurkotzea eta aztertzea auzokoen arreta hobetzeko modu gisa hartu da, orain arte Batzar Nagusiak, Baztango auzoko guztien ordezkari organoak, bere kudeaketa baldintzaturik ikusten baitu, haien edukiak gaurko testuinguru sozioekonomikoari egokituak ez daudelako. Era berean, haraneko natur baliabideen kudeaketa optimizatzea, haien aprobetxamenduari buruz litezkeen ekimenei berme gehiagorekin ekitea eta haraneko hamabortz herrietako alkateek udal kudeaketan gauzatzen duten jarduna hobeki antolatzea da kontua.

Batzar Nagusiak dokumentu hau onestearekin ez da prozesua akitzen, ondoren, egoki jotzen diren alderdi guztiak arautu eta zehazteko beharrezkoak diren ordenantzak garatu beharko baitira.

BAZTANGO ERAKUNDEEI BURUZ

Baztanek, administrazio antolakuntzari eta lurraldearen kudeaketari dagokienez, berezko hainbat ezaugarri ditu, Nafarroako gainerako udalerrietatik ezberdin egiten dutenak.

Udaleri hau berezia da historikoki, Nafarroako Toki Administrazioaren Araubideari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 9. artikulua aitpatzen duen bezala: "Baztan haraneko udalerririk bere antolakuntza tradizionala mantenduko du, Udalak, Batzar Nagusiak eta bertako herrietako batzarreek osatua. Horiek udalerraren gobernu eta administrazioan parte hartuko dute haraneko ordenantza orokorrekin xedatzen dutenari jarraikiz. Ordenantza orokorrak Batzar Nagusiak soilik onetsiko ditu indarra duen legezko esparruari eta Nafarroako foru zuzenbidearen hastapenei jarraikiz".

Gorde diren lehendabiziko ordenantzak 1603. urtekoak dira eta bertan biltzen dira ordenantza zaharrak, X. mendea baino lehenago ere batzar irekien zenbait antolakuntza-arau izan zitezkeen frogak dituztenak.

Baztan, bere sorreratik, batasun erabatekoa izan da, gaur den ber; erran nahi baita, osatzen duten herriak ez direla elkarren arteko erakunde independenteak, hortaz, ezta batasun kolektibo bat eratzeko elkartu diren herriak ere; osotasun zatietan baten kide baizen, lurralde edo barruti jurisdikzional bakarra duen udaleri baten kide. Hortaz, Baztan ez da herrien ondorio, herriak Baztanen parte baizik.

Legeak berak honako udaleri honi antolatzeko eta erabakiak hartzeko ahalmena aitortzen dio, eta beraz, Ordenantzak elkarbizitza hobetzeko hainbat alderdi artikulatzeko balio du.

Bertze aldetik, euskara historikoki Baztango hizkuntza berezkoa eta, gaur egun, baztandar gehienek ama hizkuntza da, bai eta ohiko erabilera hizkuntza ere.

Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak Baztan sartzeko euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofizialtzat duten udalen artean.

Baztan osatzen duten Udalaren, Batzar Nagusiaren eta herrietako batzarreen xedea da euskararen erabilera udal zerbitzu guztietan arautzea eta euskararen erabilera haranean sustatzea, auzokoen hizkuntza eskubideak bermatzeko eta Baztango izaera eta berezko ondarea babestu eta finkatzeko.

"Baztan haraneko administrazio organoak" ataleko idazketa berrian, Baztan haraneko erakundeek zenbait alderdi gaurkotzea lortu nahi izan da nagusiki, haraneko erakundeek arteko funtzionamendua artikulatzeko eta erakunde tradizionalen erabilera sustatzeko, bai eta honako gai hauek azpimarratzea ere:

-Batzar Nagusia bizkortu eta sustatzea, udal kudeaketa osatzen duen atal gisa, eta herrilurren benetako kudeatzaile gisa.

-Herrietako alkatearen (juruaren) eginkizuna indartzea haraneko auzokideen eta Udalaren eta Batzar Nagusiaren arteko solaskide gisa eta Batzar Nagusiaren irudia duintzea.

-Herrietako alkateen eskumen eta eskudantzien definizio berria egitea.

-Batzarreetako funtzionamendua arautu eta hobetzea.

-Auzolanen garrantzia baloratzea eta haiek bulkatu eta sustatzea.

-Jarduera tradizionalen mantentzea sustatu, haiek berri eta jarduera ekonomiko berriak erakartzea.

-Haraneko auzokoei ere ingurumenaren zaintzaile eta begirale izan behar dutela eta herrilurren kudeaketan parte hartu eta ordenantza hauek bete daitezzen begiratu behar dutela azpimarratzea.

-Auzo-kudeaketarako auzokoen parte-hartze aktiboa sustatzea eta Baztan haran mailan hartu beharreko erabaki garrantzitsuetan herritarren parte-hartzerako artikulazioa batzarreen bidez biltzea.

HERRILURREN ERABILERAZ ETA APROBETXAMENDUAZ

Baztan haranaren ordenantzak haraneko herrilurren auzo erabilera eta aprobetxamendua arautzeko tresna juridikoak dira; hala izan da historian zehar, ezagutzen diren lehendabiziko ordenantzez geroztik.

Baztanek baliabide garrantzizkoak ditu natur ingurune eta ingurumenari lotuak. Horren lekuko dira lurraldearen zabaltasuna non mendiaren %80tik goiti herrilurra den, bere natur aberastasunaren aniztasuna eta bere paisaia eta herrien xarma.

Baztar Nagusiak herri-ondasunak mantendu, defendatu, berreskuratu eta hobetzeko betekizuna izanen du eta pribatizatzeko saio edo haien kalterako ekintza ororen kontra eginen du.

Aberastasun horren errekonozimenduak (eremu babestuak areagotzea eta Natura 2000 Sarean sartzea), natur ingurune eta ingurumenaren gizarte balorazio gero eta handiagoak eta toki, eskualde eta Europar Batasunaren eremuko laguntza neurrietan islaturiko garapen iraunkorraren aldeko apustuak jarrera aktiboa eskatzen dute baliabide hauek baloratzeko, bai eta gaur egungo hainbat gabeziaren gainean aritzea ere, ingurune eta ingurumenaren kalitatea mantentzearekin bateraezinak baitira, hala nola kontrolik gabeko erretzeak, minden kudeaketa txarra, gaizki erabiltzetik edo bazter uzteatik etorritako bideetako andeatzea. Halaber, mendiaren antolamendua eta kudeaketa eskatzen dituzte, oihanetako, laborantzako, ingurumeneko eta josteta-turismoko ahalmenak, bertzeak bertze, ustiatuz.

Alderdi hauek guztiak kontuan hartu dira HERRILURREI buruzko artikulua idazterakoan.

I. TITULUA

BAZTAN HARANEKO ADMINISTRAZIO ORGANOEZ

I. KAPITULUA

HERRIKO ALKATEAREN (JURATUAREN) IZENDAPENA

1. artikulua. Baztanen beti mantendu den ohiturari jarraikiz, osatzen duten hamabortz herrietako bakoitzean herriko alkate bat (juratua) izanen da.

2. artikulua. Auzotasuna herrian duena, adinez nagusia dena eta herriko auzokoek herriko batzarrean, 3. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera, hautatzen dutena izanen da herriko alkate (juratua). Herriko auzokoak udal erroldan inskribatuak daudenak izanen dira.

3. artikulua. Herriko alkateen (juratuen) hautatzeaz:

1.-Herriko auzoko guztien artean, abenduko hirugarren igandeko deituriko batzarrerara joaten diren lagunen gehiengoak hautatuko du herriko alkatea (juratua) bi urtetarako.

2.-Baztarrea egin aitzin, herrietako alkateek (juratuek) eskura izaten ahalko dute herriko auzoko guztien zerrenda zertifikatua aste bat aitzinetik jendaurrean paratzeko. Zerrenda urteko hondarreko zuzenketaren arabera izanen da eta hautatze egunean 18 urte betetik dituztenak ageriko dira.

3.-Herri bakoitzean herriko alkateak bileraren hasiera finkatu eta aste bat aitzin jakitera emanen du. Hautaturiko egunean, herri bakoitzeko auzokoak batzarretegian edo hautatutako bertze leku batean batzartuko dira. Batzarreko buruak herriko alkatea (juratua) bera eta bi kargudun bederen izanen dira. Batzarreko idazkaria idazkari lanetan arituko da.

4.-Hautagaitzak Batzarrea hasi aitzin aurkeztu beharko dira eta herriko alkateari (juratuari) emanen zaizkio idatziz, hautagaiaren onspen sinatuarekin, edo ahoz. Herriko alkateak hautagaien izenak jakinaraziko ditu. Hautagai bat baino gehiago baldin bada, botazioa hurrengo igandera gibelatuko da eta herrian hautagaitza bat baino gehiago dela jakinaraziko da.

5.-Hautagai bakarra aurkeztuz gero, batzarrearen gehiengoak berretsi beharko du, eta horrela eskatzen bada, botazioa eginen da.

6.-Herriko alkateak (juratuak) eta bi kargudunek eratuko dute hauteskunde mahaia. Haietako bat hautagai baldin bada, beste kargudun batek ordeztuko du. Udaltzako kideak ez dira herriko alkaterako (juraturako) hautagai izaten ahal.

Une oro mahaian behinik behin bi mahaikidek egon beharko dute.

7.-Botazioa zuzena eta sekretua izanen da eta kartazal batean sarturiko boto txartelaz egingen da. Udalak hornituko ditu kartazal eta boto paperak. Mahaiak finkatuko du botazioa noiz hasi. Hautesle bakoitzak bakarrik hautagai bakar bati ematen ahalko dio botoa. Hautatuak herriko bertako auzokoa izan beharko du. Boto txartelak herriko alkateari (juratuari) emanen zaizkio. Honek botaziorako denbora xedatuko du, hiru ordu gutxienez izanen direlarik botazioa egiteko eta txartelak hautesontzi garden batean sartuko ditu, bertaratutakoen begi bistan.

Botoen zenbatzea hauteskunde-batzordeak ezarritako prozeduraren arabera egingen da.

8.-Botazioa akiturik, mahaiak zenbaketa egiaztatuko du. Mahaiburuak boto txartelak banan-banan atera eta ozenki irakurriko ditu. Mahaikideek emaniko botoak idatziko dituzte.

9.-Boto kopururik handiena lortu duen hautagaia herriko alkate (juratu) izendatuko dute eta, botazioan berdinketarik baldin bada, bigarren deialdi bat egingen da.

10.-Kargua uzten duen herriko alkateak herriko alkate (juratu) berriaren izendapen erabakia Batzar Nagusiari igorriko dio ofizialki, horrek egiten duen lehen bilkuran, batzarrearen akta erantsi beharko duelarik.

11.-Hautagairik ez bada, hautatzea urtarileko lehen igandean errepikatuko da aitzinetik ezarritako moduan.

Bigarren deieran hautagairik ez bada aurkeztu, kargu berrien hautatzea kapitulu honetan ezarritako moduan egingen da, Batzar Nagusiko buruak deialdia egin ondoren eta kargua hutsik gelditzen denetik hilabeteko epean.

12.-Herriko alkateren (juraturen) batek kargua uzten badu hautatua izan den bi urteko aldia akitu baino lehen, batzarrerako deia egingen du erabakia jakinarazteko eta herriko alkate berri bat hautatzeko prozesua irekitzeko.

II. KAPITULUA

HERRIETAKO ALKATEEN ESKUMENAK ETA ESKUDANTZIAK

4. artikulua. Herriko alkatea (juratua) herriko batzarreetako burua izanen da. Herriko alkatea hautetsia duen herriko ordezkaria izanen da Batzar Nagusian.

5. artikulua. Herriko alkateak (juratuak) herriko auzokoak behatuko ditu. Herriko alkateak auzokoei harrera egiteko egun bat eta ordutegi bat ezarriko ditu herriko beharrak eta ezaugarriak kontuan harturik.

6. artikulua. Haraneko herri bat herriko alkaterik (juraturik) gabe geldituz gero, Batzar Nagusiak ezarriko ditu bidezko diren neurriak.

7. artikulua. Herriko alkatea (juratua) hautetsia duen herriaren solaskide izanen da Haraneko Batzarrean eta Udalean. Herriko auzokoen eskaerak, kontsultak eta bestelako gaiak Batzar Nagusira eta Udalera eramanen ditu. Eta alderantziz. Lan hori egiteko, Udalak horretarako beharrezkoak diren baliabideak emanen dizkio.

8. artikulua. Herriko alkatearen (juratuaren) eskumena izanen da herriko batzarrerako deia egitea.

9. artikulua. Herriko alkatearen (juratuaren) eskumena izanen da herriko auzolanerako deia egitea.

10. artikulua. Herriko alkatea (juratua) herriko Ur Batzordeko buru izanen da, uraren kudeaketaz haran mailan onartzen den antolakuntza alde batera utzita, eta ezarritako hitzarmen edo akordioak errespetatuz. Ildo horretan, uren, hornidura eta saneamendu sarearen egoera behatu beharko du, bai eta uraren aferarekin loturiko bertze gaiak ere.

11. artikulua. Herriko alkateak (juratuak) kanposantuko egoera eta zainketa ezagutu beharko ditu eta horren segimendua egin, eta egoerak hala eskatzen duelarik, horren berri Udalari eta Batzar Nagusiari eman beharko die.

12. artikulua. Herriko alkatea (juratua) herriko besten arduradun izanen da. Besta batzordea dagoen herrietan, hura izanen da bestak antolatze arduradun. Besta batzorderik ez den herrietan, herriko alkatea (juratua) izanen da horren arduradun eta horretarako prest diren auzokoen laguntza izanen du.

13. artikulua. Herriko alkateak (juratuak) bere herriko dermioak kontrolatu eta behatuko ditu.

14. artikulua. Herriko alkateak (juratuak) diru kopuru bat hartuko du eginiko lanarengatik.

15. artikulua. Aspaldiko ohiturari jarraikiz, herrietako alkateek (juratuek) herriko auzokoak kargudun izendatzen ahalko dituzte bere eginkizunetan laguntza emateko (bi gutxienez herri bakoitzean).

16. artikulua. Herrietako alkateek (juratuak) udal aurrekontuak egiteko proposamenak aurkeztu ahal izanen dituzte, Baztan Haraneko Udalak aurrekontuak onetsi aitzin.

17. artikulua. Udal planean ordezkatzeko duen herria ukitzen duen edozein aldaketa egin nahi delarik, herriko alkateari (juratuari) jakinarazi eta adituko zaio.

18. artikulua. *Herri mailan herri-galdeketa egitea dagokion herriko alkatearen eskumena izanen da. Galdeketa 18 urtetik goitiko pertsonak hartu ahal izanen dute parte, betiere herriko bizilagunak badira 12 hilabete aitzinetik gutxienez (hau da testu berria, artikulua aldatu baitzen).*

19. artikulua. Herriko alkateak (juratuak) eguneratua eduki beharko du horretarako prestatutako herriko iragarki ohola, Udalak eta Batzar Nagusiak igorritako komunikazioei, batzarreerako azken akteiei eta egokiak iruditzen zaizkion bertzelako idatziei dagokienez.

III. KAPITULUA BATZARREAK

20. artikulua. Batzarrea auzokoen bilera da, haraneko 15 herrietako bakoitzean egiten dena. Herri bakoitzeko alkateak (juratuak) eta auzokoek erabakitzen dute. Bertan, herri mailan zein Baztan mailan interes publikoa duten gaiak aztertuko dira.

21. artikulua. Batzarrean auzotasuna duten 18 urtetik goitikoek hartuko dute parte. Alta, herrian etxebizitza bat izan eta herriko alkatearen (juratuaren) aitzinean horren jabe direla egiaztatzen duten pertsonak ere parte hartzen ahalko dute. Halaber, eztabaidatuko den gairen batean interesa egiaztatzen duten auzokoek ere parte hartzen ahalko dute, haien presentzia alkateak (juratuak) proposatu eta batzarrearen gehiengoak berretsi beharko duelarik, eta parte hartzeko baimena eskatu duten gaia eztabaidatzen den bitartean bakarrik izanen ahalko direlarik batzarrean.

Batzarrerako asistentzia pertsonala izanen da, eta inor ezin izanen da hirugarren batek ordezkaturia izan.

22. artikulua. Herriko alkateak (juratuak) egiten du Batzarrerako deia. Alabaina, honako hauek izanen dute eskumena herriko alkateari (juratuari) batzarrerako deia egin dezan eskatzeko: batzarre batek bertze batzarre baterako deia egiten ahal du, bai eta Batzar Nagusiak eta herriko auzokoen %25ek ere.

23. artikulua. Batzarrerako deia gutxienez ere bi egun natural aitzin egiten da.

24. artikulua. Deialdia jendearen aitzinean paratuko da herri bakoitzeko iragarki ohoetan eta herri bakoitzeko ohiko tokietan.

25. artikulua. Batzarrea, herriko alkateak (juratuak) bertze tokirik aipatzen ez badu, ohiko tokian egiten da.

26. artikulua. Batzarreko mahaia hauek osatuko dute: mahaiburua, herriko alkatea (juratua) bera izanen dena, eta herriko kargudunak, halakorik bada; azken horiek arituko dira diruzain eta idazkari lanetan.

27. artikulua. Batzarrean eztabaidatzen direnak herria ukitzen duten gaiak dira; erabakiak, aktan bildu ondoren, Batzar Nagusira eramaten ahalko dira.

28. artikulua. Batzarreerako aktak idatziko dira eta aktak zein dokumentazio publikoa batzarreeragan (batzarrea egiten den tokia) edo uneoro ikusgai izaten ahal diren bertze tokietan gordeko dira.

IV. KAPITULUA AUZOLANAK

29. artikulua. Auzolana da herrietako egoiliarrek herriari berari eta Baztani egiten dieten ekarpena, jeneralean norberaren prestazioaren bitartez.

30. artikulua. Herriko alkateak (juratuak) egiten du auzolanerako deia.

31. artikulua. Deialdia iragarki ohoetan emanen da aditzera.

32. artikulua. Herriko alkateak (juratuak), kargudunen laguntzarekin, auzolana planifikatu eta antolatuko du. Halaber, gauzatu beharreko lanaren balorazioa egiten du, lana egiteko beharrezkoak diren pertsonen kopuru gutxienezkoa eta gehienekoa ezartzeko.

33. artikulua. Auzolanetan parte hartzera beharturik daude herri bakoitzeko egoiliarrek, ondoko hauek kenduta:

1.-Hemezortzi urtetik beheitiko pertsonak eta berrogeita hamabortz urtetik goitikoak.

2.-Urritu fisiko, psikiko eta zentzuzkoak.

3.-Espetxeetan preso daudenak.

34. artikulua. Urteko norberaren prestazioa ez da hamar egunetik goitikoia izanen, ezta ondoz ondoko hiru egunetik goitikoia ere. Bertze pertsona egoki batek bere borondatez ordeztan ahalko du edo lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza adina diru ordainduta.

35. artikulua. Ezinbertzeko kasuetan salbu, prestazioa ez egin eta ez ordaintzeak haren zenbatekoa gehi kopuru bereko zehapena ordaintzera behartuko du. Bi kontzeptu horiek horretarako emaniko epean ez badira ordaintzen premiamendu bidetik eskatuko dira.

36. artikulua. Baztango Udalak prestazioa egitera beharturik direnei suertatzen ahal zaizkien istripuen arriskua estaliko du aseguru bat kontratatuz.

V. KAPITULUA KONTRIBUZIOAK

37. artikulua. Udalak, udal aurrekontuek ahalbidetzen badute, bidezko jotzen duen diru kopurua paratuko du haraneko hamabortz herrien artean banatzeko, kopuru horren erdia hamabortz herrien artean zuzen hainbanaturik eta bertzea hondarreko udal eroldaren arabera.

38. artikulua. Tokian tokiko beharrei erantzuteko, haraneko herriek auzokoei zerga bereziak ezartzen ahalko dizkiete, betiere Haraneko Udalak ezarriak dituenetik edo aurrerago ezartzen ahal dituenetik aparte.

39. artikulua. Herrietako edozeinek zerga bereziak ezarri nahi baditu, egin aitzin batzarrean erabaki beharko da eta Batzar Nagusiari jakinarazi, horrek onespina eman dezan.

40. artikulua. Herriek zerga berezien bitartez erdietsitako baliabideak auzokoek batzarrean erabakitzen duten moduan inbertituko dira. Erdietsitako baliabideez egiten den kudeaketaren inguruko kontuak emanen zaizkie herriko auzokoei, Haraneko Udalari eta Batzar Nagusiari.

VI. KAPITULUA BATZAR NAGUSIAREN ERATZEA, JUNTEROEN IZENDAPENA ETA BILKURAK EGITEA

41. artikulua. Batzar Nagusia eratuko dute Udalak, ibarreko hamabortz herrietako alkateek (juratuek) eta juntero izeneko lau auzokok, Baztango lau kuarteletarik bana. Hauek dira kuartelak:

-Baztangoiza: Erratzu, Arizkun, Azpilkueta eta Amaiur herriek osatua.

-Elizondo: Elizondo, Lekaroz eta Elbete herriek osatua.

-Erberea: Irurita, Gartzain, Arraioz eta Oronoz herriek osatua.

-Basaburua: Ziga, Aniz, Berroeta eta Almandoz herriek osatua.

42. artikulua. *Lau alderdi edo kuarteletako bakoitzerako batzarkideen izendapena alderdi bakoitzeko batzarrek egiten dute. Batzar bakoitzak boto bat izanen du. Berdinketa egonez gero, kuartel horretako herritarren artean boto gehien bildu duen pertsona hautatuko da. Botazioa urte naturalaren barnean egiten duten lehendabiziko bilkuran izanen da, eta izendatzen direnek dagozkien alderdietako auzoko izan beharko dute ezinbertzean.*

Aukeraketa egin baino 4 egun lehenago herrietako alkateek hautagaien zerrenda udalera ekarriko dute. Udalak bandoen bitartez herriei jakinaraziko die nor diren hautagaiak (hau da testu berria, artikulua aldatu baitzen).

43. artikulua. Batzar Nagusiko idazkaria Udalekoa izanen da.

44. artikulua. Junteroak lau urtez egonen dira karguan. Hortaz, Batzar Nagusiak egiten duen lehendabiziko bilkuran izendatuko ditu. Junteroak Batzar Nagusiko kideak dira eta junteroak izateko hobegarria izanen da aitzinetik herriko alkate (juratu) izan izana. Junteroen funtzioak, Batzar Nagusiaren bilkuretara joateaz gain, honakoak dira: txostenak egiteko eta Batzar Nagusiak eskatutako gaietan laguntza eta aholkularitza.

45. artikulua. Batzar Nagusiko burua Baztan Haraneko alkatea izanen da.

46. artikulua. Batzar Nagusiak urtean gutxienez lau ohiko bilkura egiten ditu, hiruhileko naturalaren lehendabiziko egun baliodunean.

47. artikulua. *Batzar Nagusiaren bilkura arrunt eta berezietan, 8 mendi eskudunek hartuko dute parte, alderdi edo kuartel bakoitzeko bik. Hitza bai baina botorik ez dute izanen. Kuartel bakoitzeko batzarrek lau alderdietako bakoitzeko mendi eskudunak izendatuko dituzte. Batzar bakoitzak boto bat izanen du.*

Berdinketa egonez gero, kuartel horretako herritarren artean boto gehien bildu duen pertsona hautatuko da. Botazioa urte naturalaren barnean egiten duten lehendabiziko bilkuran izanen da, eta izendatzen direnek dagozkien alderdietako auzoko izan beharko dute ezinbertzean.

Aukeraketa egin baino 4 egun lehenago herrietako alkateek hautagaien zerrenda udalera ekarriko dute. Udalak bandoen bitartez herriei jakinaraziko die zein diren hautagaiak (hau da testu berria, artikulua aldatu baitzen).

48. artikulua. Beharrezkoa den aldi oro Batzar Nagusia aparteko bilkuran batzartuko da, Haraneko alkateak, Batzarreko buru den aldetik, deitua edo Batzar Nagusiko kideen laurdenek eskatzen badute.

49. artikulua. Batzar Nagusiak egiten dituen bilkuretan ordenantza hauetako gaiei buruz hartzen diren erabaki eta ebazpenetan, botazioetan berdinketarik suertatzen bada, bigarren botazioa eginen da eta, berdinketa mantenduz gero, buruaren botoa duen alderdiak erabakitzen duena gailenduko da.

50. artikulua. Baztango Batzar Nagusian hartzen diren erabakiak bertako kideen gehiengo soilez onetsiko dira.

51. artikulua. Batzar Nagusiak hartzen dituen erabakiek ordenantzen indarra izanen dute. Batzar Nagusiaren bilkuretan erabaki eta akta liburuan idazten den orok, bai komunitatearen mesedetarako xedapenak bai ordenantzetan bildutako kontzeptuak argitzeko, betetzera behartuko du ordenantzetan balego bezainbertze indarrarekin, betiere erabaki horiek foru xedapenak hausten ez badituzte edo haien kontra jotzen ez badute.

52. artikulua. Batzar Nagusiak administrazio, ordenatze, aprobetxamenduen erregimenaren ezarpen, Baztan Haraneko herrilurretako ondasunen babeste eta zainketarako ahalmena izanen du.

53. artikulua. Batzar Nagusiak herrilur guztien kontserbazio, defentsa, hobekuntza eta berreskuratzea zainduko du eta herrilurrean kalteak eragiten ahal dituen edozein pribatizazio-saio nahiz ekintzaren aurka agertuko da.

II. TITULUA HERRILURREZ

VII. KAPITULUA HERRILURRETAKO ONDASUNAK

54. artikulua. Haraneko herrilurretako ondasunak dira Batzar Nagusiaren titulartasuna dutenak. Haien erabili, defendatu, antolatu eta hobetzeko ahalmenen gauzatzea Batzar Nagusiari dagokio; haien erabiltzea eta aprobetxamendua ordenantza hauetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten haraneko auzokoei dagokie. Herrilurrak bertzereskinak, ezinbertzekoak eta bahituezinak dira eta ez daude inolako zergari lotuak.

55. artikulua. Auzokoen aprobetxamendurako ez diren herri-aprobetxamenduak (oihan loteak, harrobiak, ihizia, etab.) auzokoen mesedetarako izanen dira udal aurrekontuen bitartez, eta haien aprobetxamendua arautzen duten foru legeek eta Batzar Nagusiak onetsitako baldintzen agiriek aginduko dituzte.

56. artikulua. Auzo-aprobetxamenduak dira Baztango auzokoei zuzenean egiten dituztenak Batzar Nagusiak emandako kontzesioaren bidez. Kontzesioa hartu duten auzokoei inolaz ere ez dituzte saltzen, eskualdatzen, akuratzeko edo aprobetxamendu zuzena ez den bertzeko modalitatez lantzen ahal.

57. artikulua. Eskuarki, emakida eta aprobetxamendu guztientzat, erregistro bat ezarriko da. Erregistro horretaz haraneko idazkaria arduratuko da. Honek kontzesioaren kokapenerako ezinbertzeko datu guztiak eduki beharko ditu, eta koordenadak identifikaziorako elementu gisa planteatzen dira (ED 1950 30, UTM).

58. artikulua. Aprobetxamendurako emakidak, edozein motatakoak izanik ere, etenda geldituko dira emakidaduna Baztan Haraneko Udalarekin berandutza-egoeran baldin badago.

59. artikulua. Batzar Nagusiak, egoki ikusten badu, lurra eta aprobetxamenduak edozein momentutan erabiltzeko ahalmena izanen du, herrilurren hobekuntza, aldaketa, azpiegiturretan egindako lanak edo bertzeko gisako arrazoiengatik, aprobetxamenduen emakidak indargabetuz. Alta, hiru hilabete lehenago gutxienez jakinaraziko dio emakidadunari, baldin badagokio, kalte-ordainak ordainduz edo bertzeko eremu batean emakida bat emanez, zuzenbideak araututakoaren arabera eginez.

60. artikulua. Onuradunez.

1.-Oro har, edozein auzo-aprobetxamendutako onuradun izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Baztango auzokoa izatea, erroldan gutxienez bi urtez izena emana izatea.

b) Baztan Haraneko Udalari egin beharreko zerga ordainketa egunean edukitzea.

2.-Ezarri berria den abeltzainari ez zaio eskatuko erroldan gutxienez bi urtez izena emana izatea, betiere bere bideragarritasuna egiaztatzen duen proiektu bat aurkezten badio Batzar Nagusiari, lehenengo emakidan balora dezan.

61. artikulua. Herrilurren aprobetxamenduaren emakidadunak lanak bi urteko epean egin beharko ditu, bertze gisa, Batzar Nagusira itzuliko da.

62. artikulua. Herrilurren aprobetxamenduen onuraduna hiltzen bada, sendiak baja edo, posible bada, aprobetxamenduarekin segitu nahi badute eta 60. artikululak ezarritako betebeharrak betetzen badituzte, alta eskatu beharko dute, eta Batzar Nagusiak eskaera bakoitzari erantzuna emanen dio. Onuradunari baja ematen bazaio, abeltzain-txartela edukitzeari uzten badio, edo errolda aldatzen badu, aldaketa horien berri ematera beharturik egonen da.

63. artikulua. Aprobetxamendu kanona. Aprobetxamenduen emakidadunek urtero ordainduko dute herrilurren aprobetxamendurako kanon gisa ordenantzak ezarritako kopurua.

VIII. KAPITULUA LARREAK

64. artikulua. Auzo-aprobetxamenduaren ondorioetarako, Baztango larreak honela sailkatzen dira: erabilera komuneko mendi larreak, banakako erabilerako luberriak eta, gainerako herrilurretako abeltzaintza.

65. artikulua. Mendiko larreak.

1.-Gaur egun mendiko larreak dira Belate, Erdiz eta Lizartzuko eskindegietan daudenak.

Aprobetxamendua amankomunean eginen dute haraneko abeltzainenak diren aziendek, honako baldintza hauek betetzen badituzte: 60. artikulua ezarritako baldintzak betetzea, abeltzain-txartela izatea, azienta haranean erregistraturik izatea eta haranean erroldaturik egotea. Aziendak arlo hori arautu eta indarra duen legeriak eskaturiko abere osasuneko baldintzak beteko ditu.

2.-Batzar Nagusiak, ordenantza hauek garatzeko erabaki batean ezarriko ditu urteko abeltzaintza aroak; azienta sartzeko ordena, espezieen arabera; auzoko abeltzainek egin beharreko eskaera, azienta sartu baino 15 egun aitzin gutxienez; aziendaren markatzea; larreko alhatzeko karga gainditzen denean, larreetan sartzan ahal diren buru kopuruaren gehieneko portzentajeak, espeziearen arabera eta abeltzain bakoitzeko, eta abelburu bakoitzeko urteko kanona, espeziearen arabera.

3.-Aprobetxamenduaren iraungitzearen zioak:

a.-60. artikulua ezarritako baldintzak ez betetzea. Emakidadunak abeltzain-txarteldun abeltzain izaera galtzea.

b.-Osasun-baldintzak ez betetzea.

c.-Belagiaren ekoizpenaren hondatze larria.

d.-Ondoz ondoko bi urtez kanona ez ordaintzea.

e.-Mendian baimenik gabe erreketak egitea.

66. artikulua. Luberriak.

1.-Luberriak dira herrilurretan egindako labakitzeak, Nafarroako Gobernuak larreak sortzeko programetako inbertsio publikoen bitartez egindakoak eta auzokoek eurek, Batzar Nagusiak baimendurik edo zuzenean esleiturik, egindakoak.

2.-Aprobetxamendu moduak eta onuradunak. Aprobetxamendua banaka eginen da eta Batzar Nagusiak horretarako baimena emanen die herrietako auzokoei 60. artikuluan aipaturiko baldintzak betetzen badituzte, abeltzain-txartela badute, aziendak haranean erregistratuak badituzte eta arlo hori arautu eta indarra duen legeriak eskaturiko abere osasuneko baldintzak betetzen badituzte.

3.-Emakidadunen betebeharrak. Aprobetxamenduaren emakida duten auzokoek belaiak ekoizpen baldintza onetan mantendu beharko dituzte eta horretarako beharrezkoak diren lanak egitera beharturik

izanen dira. Halaber emakidadunak, aprobetxamendua baliatzen ez badu, Batzar Nagusiari jakinarazi beharko dio. Aprobetxamendua ez baliatzeak kalte-ordainik gabeko emakidaren iraungitzea ekarriko du.

4.-Luberrien emakida.

a) Luberriak hamar urterako emanen dira, eta aukera izanen da kontratu hori bertze hamar urtez (edo behar dituztenez) luzatzeko. Horretarako dituzten azizuden errolda aurkeztu beharko dute udaletxean.

b) 3 ALU baino gutxiago dituztenek ezin izanen dute luberri hauen aprobetxamendua eskatu. Aziendarik ez izatekotan, luberria zuzenean kenduko zaie.

c) Luberri hauek errentan ematea debekaturik dago.

d) Luberriak lehentasun batzuen arabera banatuko dira:

-Luberria nekazariak berak aprobetxatzea.

-Lanbide nagusia nekazaritza duen nekazaria izatea.

-Eskaera data.

e) Kasu bereziak Batzar Nagusian erabakiko dira.

f) Honako luberri hauetako bat emanez gero, urtero ordaindu beharko du udaletxean herrilurren aprobetxamenduaren kanona, eta luberria egoera egokian mantenduko duela sinatu beharko du. Hori betetzen ez bada, interesatuari baja eman eta beste eskatzaile bati emanen zaio.

5.-Kontzesioa iraungitzeko zioak. Ondoren aipatzen diren hauek dira kontzesioa iraungitzeko zioak, lurak haranera itzuliko direlarik. Batzar Nagusiak eginen du adjudikazio berria:

a) 60. artikulua ezarritakoa ez betetzea.

b) Emakidadunak abeltzain-txarteldun abeltzainaren izaera galtzen badu.

c) Osasun beharkizunak ez betetzea.

d) Larreko ekoizpena larriki andeatzea.

e) Ondoz ondoko bi urtez kanona ez ordaintzea.

f) Mendien erreketak egitea baimenik gabe.

g) Emandako luberrien berralokatzeta edo lagapena.

6.-Kontzesioa iraungitzeko udal espedientea udal oihanzainak edo hirugarrenek egindako salaketak hasiko du; oihan batzordearen txostena eta interesdunari aditzea beharrezkoak izanen dira.

7.-Emakiden berrikustea. Batzar Nagusiak hamar urtean behin eginen ditu luberriak aprobetxatzeko kontzesioak, inbertsio publikoko zein pribatukoak izan, ordenantza hauek onesten diren urtetik hasita. Emakidadunak kontzesioa berriro nahiko balu, epea bukatu baino lehen eskatu beharko luke 10 urteko luzapena, eta Batzar Nagusiak erabakiko du eskaera onartu edo ez. Berritzea eskatzen ez bada, emakida bukatutzat emanen da eta haranera itzuliko da.

8.-Hala izanik ere, kontzesioa bitartean, noiznahi, Batzar Nagusiak aztertzen ahalko du onuradunek beharkizunak eta betebeharrak betetzen dituzten.

9.-Larreetarako luberritze berrien kontzesioa.

a) Haraneko erakundeek, Batzar Nagusiak eta Udalak, larreak sortzeko esfortzu handia egina dutenez dagoeneko, Baztango auzokoei xede horretarako luberritze berrien kontzesioak salbuespen gisa emanen zaizkie.

b) Eskaera idatziz eginen da, aprobetxamendua gauzatu nahi den parajea eta luberritu nahi den gizarur kopurua (374 metro karratukoak) zehaztuz.

c) Mendi kargudunek eta mendizainek eskaeraren gaineko txostena eginda eta Batzar Nagusiak onetsi ondoren, teknikari bati eskatuko zaio mugarritze akta eta memoria egiteko, lokalizazioa emanez (ED 1950 30 UTM koordinatuak) eta bertako plano bat eginez, bertan zedarritzearen mugari guztiak agertuko ditu. Dokumentazio hirukoitza eginen da eta ale bat Udalari emanen zaio, bigarrena emakidadunari eta hirugarrena Nafarroako Gobernuari.

d) Arestian azaldutako lanek sortzen dituzten gastu guztiak kontzesiodunaren bizkar izanen dira.

e) Auzokoei herrilurrak bere lursailen segidan luberritzen ahalko dituzte, betiere Batzar Nagusiak horretarako baimena ematen badu.

f) Luberritutako herrilurretako itxidurek, paretazkoak, burdin harizkoak edo sare metalikozkoak izan, gutxienez ere ehun eta hogeitazentimetroko altuera eta, hala denean, alanbreko bortz lerro izanen dituzte.

g) Luberritzeko baimena duten herrilurrak, kontzesioa ematen denetik bi urtetan landuko dira. Bertzenaz, kontzesioa deuseztuko da eta kontzesiodunak Udalari luberritzeko eskubidearengatik ordaindutako dirua galduko du. Kontzesiodunak eginiko hein bateko lanak (itxiturak, etab.) Baztanen faboretan geldituko dira. 67. artikulua. Abeltzaingoa gainerako herrilurretan.

1.-Ibarreko herrilur irekietan, 60. artikulua ezarritako baldintzak betetzen dituzten, azienda bere izenean duten, azienda haranean erregistraturik duten eta indarra duten abere osasuneko betebeharrak betetzen dituzten auzokoen azienda alhatuko da.

2.-Auzokoak mota eta espezie orotako azienda markatu beharko du, une oro norena den jakiteko moduan.

3.-Bertze eskualde edo haranetako azientak galarazia izanen du Baztango herrilurretan alhatzea, salbu eta elkarrekiko larre hitzarmenak dituztenetan.

4.-Kontzesioa iraungitzeko zioak.

a) 60. artikulua ezarritakoa ez betetzea.

b) Emakidadunak abeltzain-txarteldun abeltzainaren izaera galtzen badu.

c) Osasun beharkizunak ez betetzea.

d) Ondoz ondoko bi urtez kanona ez ordaintzea.

e) Mendingo erreketak egitea baimenik gabe.

68. artikulua. Ahuntz-aziendaren alhatzeaz.

1.-Kontuan harturik ahuntz-aziendak kalteak eragiten dituela, Urritzaten eta Aritzakuneko beheitiko alderdian, zuhaitzik gabeko eremu eta txaradietan izan ezik, azinda hori haraneko herrilurretan alhatzea debekatzen da.

2.-Aipatu ahuntz-aziendak herrilurrei onura atera ahal izateko, betiere aitzinetik aipatu bezala, Urritzaten eta Aritzakun alderdiko beheitiko aldean zuhaitzik gabeko eremu eta txaradietan, indarrean dauden osasun-beharkizunak bete beharko dituzte.

IX. KAPITULUA

OIHAN LANDATZEAK HERRILURRETAN

69. artikulua. Zuhaitz landatze berriak Baztango herrilurretan. Hemendik aitzina 60. artikulua ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta eremu jarraiko oihan landatze txikiak egin nahi dituzten haraneko auzokoei idatziz eskatu beharko diote baimena Batzar Nagusiari.

70. artikulua. Batzar Nagusiak bertze interesdunekin hitzarmenak itauntzen ahalko ditu herrilurretan oihan landatzeak egiteko. Horiek Batzar Nagusiak onesten dituen klausulek aginduko dituzte eta ez dira lotuko ibarreko auzotasun izaerarekin.

71. artikulua. Emakidadunak edo haren ondorengoek, 70. artikuluan aipaturiko hitzarmenen kasuan, Udalari emanen diote egindako salmentaren prezio osoaren %25a, landaketaren onuren partaidetza gisa. Aipatu %25 horri ez zaio inolako deskonturik eginen, ordaindu beharreko zerga guztiak emakidadunak ordaindu beharko baititu.

72. artikulua. Mendi kargudunek eta mendizainek eskaeraren gaineko txostena eginda eta Batzar Nagusiak onetsi ondoren, teknikari bati eskatuko zaio memoria egiteko, landaketaren lokalizazioa (ED 1950 30 UTM koordinatuak), azalera, espeziea eta plantazio markoa adieraziz.

73. artikulua. Etorkizunean eginen diren landaketek inguruko lurrekin izan beharreko distantziaz. Etorkizunean eginen diren landaketa guztiak, mugarriztatutako lur pribatuak edo herrilurrak izanik ere, bertzeren ondoko lurretatik honako distantziak mantenduz eginen dira:

-Landare haztegi edo mintegien kasuan: 2 metro.

-Fruta-arbolen kasuan: 6 metro.

-Makal, pinu eta haritzen kasuan: 10 metro.

-Gaztainondo, intxaurrondo, gereziendo eta bertzelako hostotsuen kasuan: 12 metro.

Akaziei dagokienez, landare inbaditzailea izanik, adostu da Batzar Nagusiak debekatuko duela herrilurretan akaziak landatzea, sortzen dituen kalteengatik. Auzokoei berez sortzen diren akaziak aprobetxatu nahi badituzte, piketeak edo bertzelako erabileretarako, jasotako aprobetxamenduetatik at, ezarritako bideak jarraituz egin beharko dute eskaera.

74. artikulua. Aitzinetik aipaturiko lan guztiek eragindako gastu guztiak emakidadunaren bizkar izanen dira. Alta, eskatzailea herriko alkatea (juratua) baldin bada, herriaren izenean, sortutako gastuak udalaren bizkar izanen dira.

75. artikulua. Honako hauek izanen dira kontzesioa iraungitzeko zioak:

1.-Oihanberritzea larriki andeatzea.

2.-Ondoz ondoko bi urtez kanona ez ordaintzea.

76. artikulua. Kontzesioaren berraztertzeaz. Batzar Nagusiak kontzesioa eman denetik hamar urte pasata berriz aztertuko du. Modu horretan, auzokoek herrilurretan dituzten zuhaitzen estatistika eguneratuz joanen da, horretarako auzokoek datuak eman beharko dituztelarik eskatzen zaizkienean.

77. artikulua. Batzar Nagusiak eta Haraneko Udalak oihan landatzeak sustatzea, bereziki bertako haritza, lehentasunezko espezie izendatzen dena.

1.-Egoki diren herrilurretan haraneko erakundeek bidezko jotzen duten bezainbertze oihan landatze egiten ahalko dute, betiere lehenago aprobetxatzen zuen auzokoari aditu ondoren. Horri aprobetxamendurako bertze lur bat ahalbidetuko zaio.

2.-Batzar Nagusiak eta Baztan Haraneko Udalak espezieen aniztasuna sustatuko dute, oihanberritu beharreko eremuaren gaineko ikerketan oinarrituz. Bertako haritzak lehentasuna du landatzeak planifikatzeko orduan, betiere herrilurrak espezie horretarako egokiak badira. Ahal denean, dauden hariztiak berez birsortzeko beharrezkoak diren oihan lanak egingen dira.

3.-Batzar Nagusiak zuhaitzietz osatutako eta herrilurrentzat interesgarriak diren kontzesio zaharren berreskurapena sustatuko du.

4.-Batzar Nagusiak lan hauetarako finantza baliabideak eta diru-laguntzak, Nafarroako Gobernuarenak edo Europar Batasunarenak izan, hartzeko beharrezkoak diren ekintza oro burutuko ditu.

X. KAPITULUA IRAZELAIK

78. artikulua. Batzar Nagusiak emanen du azientaren inaurkinetarako iratze aprobetxamendua haraneko herrilurretan, auzokoak eskatu ondoren. Honek azienta bere izenean ukan eta indarra duten abere osasuneko betebeharrak bete beharko ditu.

79. artikulua. Batzar Nagusiak galarazten ahalko du iratzeak moztea herrilurretan, bertan oihan landaririk, hala nola gaztainondoak, lizarrak, gereziondoak eta, bereziki, bertako haritzak, badira, irazelaiaren dauden oihan landareen dentsitatea gutxienez ere 374 metro karratuko gizalur bakoitzeko 30 landarekoa delarik. Aitzinagotik aprobetxatzen ari den auzokoari adituko zaio eta iratze aprobetxamendurako bertze lur bat eman ere.

80. artikulua. Interesatutako auzokoak idatziz egingen dio eskaera Batzar Nagusiari. Mendi kargudunek eta mendizainek eskaeraren gaineko txostena eginda, Batzar Nagusiaren eskumena izanen da kontzesio ematea. Kontzesioa eskatzaileari ematen bazaio, memoria tekniko egiteko eskatuko da, non irazelaiaren lokalizazioa (ED 1950 30 UTM koordinatuak), mugak eta azalera aipatuko baitira.

81. artikulua. Haraneko herrilurretan irazelaiaren aprobetxamendua adjudikatua duen auzokoak, hura mugarritu egin beharko du.

82. artikulua. Hamar urtetan behin berrituko dira onuradunaren eskaera eta auzokoek disfrutaturiko irazelaiaren aprobetxamenduaren Batzar Nagusiaren berrespena.

83. artikulua. Honakoak izanen dira kontzesioa iraungitzeko zioak:

1.-60. artikulua ezarritakoa ez betetzea.

2.-Emakidadunak abeltzain-txarteldun abeltzainaren izaera galtzen badu.

3.-Irazelaia larriki andeatzea.

4.-Errentan eman edo lagapena egitea.

5.-Ondoz ondoko bi urtez kanona ez ordaintzea.

6.-Ondoz ondoko bi urtez irazelaiaren erabilera frogagarria ez egitea.

XI. KAPITULUA LANTZEAK

84. artikulua. Batzar Nagusiak Komunitatearen lurra, baratzeak, adibidez, lantzeko eremuak eta erabilerak antolatu eta planifikatuko ditu. Antolaketa eta planifikazio horiek lotesleak izanen dira aprobetxamendu kontzesio orotarako.

85. artikulua. Interesatutako auzokoak idatziz eginen dio eskaera Batzar Nagusiari. Mendi kargudunek eta mendizainek eskaeraren gaineko txostena eginda, Batzar Nagusiaren eskumena izanen da kontzesioa ematea. Kontzesioa eskatzaileari ematen bazaio, memoria teknikoa egiteko eskatuko da, non landaketa egiteko lurraren lokalizazioa (ED 1950 30 UTM koordinatuak), mugak eta azalera aipatuko baitira.

86. artikulua. . Luberritzeko ematen diren auzo lurra kontzesioa eman eta bi urtera gehienez ere landu beharko dira. Bertzenaz kontzesioa deuseztatuko da eta adjudikaziodunak luberritzeko eskubidea izateko ordaindutako diru kopurua galduko du.

87. artikulua. Honakoak izanen dira kontzesioa iraungitzeko zioak:

- 1.-60. artikulua ezarritakoa ez betetzea.
- 2.-Lantze ekoizpena larriki andeatzea.
- 3.-Errentan eman edo lagapena egitea.
- 4.-Ondoz ondoko bi urtez kanona ez ordaintzea.

88. artikulua. Hamar urtetan behin berrituko dira onuradunaren eskaera eta auzokoek disfrutaturiko landaketen aprobetxamenduaren Batzar Nagusiaren berrespena.

XII. KAPITULUA ETXEKO EGURRA

89. artikulua. Batzar Nagusiak aprobetxamenduaren kontzesioa erabakitzen ahalko du auzokoek etxeko egurraz dituzten beharrei erantzuteko.

90. artikulua. Aitzinetik aipatutako lehenengo xedapenak adierazitako aprobetxamenduak, etxebizitza eta suaren arabera eginen dira.

91. artikulua. Kontzesio erabakiak Nafarroako Gobernuari jakinaraziko zaizkio baimentze ondorioetarako.

92. artikulua.

1.-Auzokoen aprobetxamendurako loteak seinalatzean, mendien alorrean eskumena duen administrazioaren irizpideei jarraikiko zaie.

2.-Zuhaitzak oinez oin markatuko dira mendi administrazioak ezarritako irizpide teknikoen arabera.

93. artikulua. *Egur-sailetarako eta egurra ateratzeko, gehieneko epea urtebetekoa izanen da horiek markatzen hasita. Baztango mendizainek egur-sailen markatze-data txosten batean jaso beharko dute. Aipatu epea akiturik, moztu ez diren egur-sailak edo moztu bai baina atera ez direnak erabiltzeko kontzesioa iraungiko da eta Batzar Nagusiaren esku geldituko dira. Ez da loteen ordain saria itzuliko (hau da testu berria, artikulua aldatu baitzen).*

94. artikulua. Onuradunek soberakinak bildu eta pilatu beharko dituzte, behin egurra eraman eta gero, soberakin horiek ezin izanen direlarik bide, mendi bide edo pasatu ahal izateko oztopo izanen diren lekuetan metatu, basoa garbi utziz.

95. artikulua. Haizeak botatuko zuhaitzak edo "zain hirauliak" gainerako egur aprobetxamenduen gisara ulertuko dira, eta beraz, partikularrek ezin izanen dituzte saldu edo bildu, eta prozedura administratibo baten mendean egonen dira, etxeetako egur loteak bezala.

96. artikulua. Eskatzaileak eskaera eta ordainketa pertsonalki aurkeztu beharko ditu, eta ez hirugarren baten bidez.

97. artikulua. Kontu handiz behatuko da adjudikatutako egur loteak kontzesioaren helburu eta xedeetan erabiltzen diren. Galarazita dago eskuz aldatzea edo bertzerentzea.

XIII. KAPITULUA

SAROIAK, BORDAK ETA NEKAZARITZA-ABELTZAINZAKO BERTZE ERAIKINAK HERRILURRETAN

98. artikulua. Azienda eguraldi txarretik babesteko, komenigarria da horretarako lursail aproposak eta paraje egokietan izatea. Hortaz, xede horretarako erabiliko diren lur eremuak, saroi izenekoak, identifikatuko dira gordetzeko. Bai egungo saroietan bai gero ezartzen direnetan, aziendari babesa eta itzala emateko behar adina zuhaitz landatuko dira.

99. artikulua. Herrilurretan azienda kontzeko bordak edo nekazaritza nahiz abeltzaintzarako baliatzeko abeltegi, ukuilu, biltegiak edo gisako bertzelako eraikinak eraiki edo zaharberritu nahi dituzten auzokoek, honako baldintzak bete beharko dituzte: 60. artikulua ezarritako baldintzak bete, abeltzain-txartela eduki, azinda haranean erregistratua izan eta abere osasuneko betebeharrak betetzea.

100. artikulua. Herrilurretan dauden azienda kontzeko erautsitako borden jabeek bi urteko epea izanen dute eraikina berreraikitzeke. Bertzela, bertze auzoko batek izanen du eremu horretan bertan edo hurbil borda bat eraikitzeke baimena eskatzeko ahalmena.

101. artikulua. Herrilur eraikiezinean nekazaritza-azpiegitura bati hasiera eman nahi dioten auzokoek unean-unean indarra duen hirigintza araudia eta foru araudia errespetatu beharko dituzte. Behin proiektuak legearen eskakizun guztiak beteta, proiektua garatzeko herrilurren okupazioa aldi baterako baimentzeko edo ez baimentzeko ahalmena Batzar Nagusiak izanen du.

102. artikulua. Herrilurretan egindako eraikina ezin izanen da erabili eraiki zenean eman zitzaiona ez den bertze edozein erabilerarako, aitzinetik Batzar Nagusiaren baimena lortu gabe eta indarra duen araudia betez.

103. artikulua. Batzar Nagusiak hamar urtetan behin berraztertuko ditu emandako kontzesioak.

104. artikulua. Kontzesioa iraungitzeko zioez:

1.-60. artikulua ezarritakoa ez betetzea.

2.-Emakidadunak abeltzain-txarteldun abeltzainaren izaera galtzen badu.

3.-Osasun beharkizunak ez betetzea.

4.-Ondoz ondoko bi urtez kanona ez ordaintzea.

5.-Errentan eman edo lagapena egitea.

6.-Eraikina, eraiki zenean eman zitzaiona ez den bertze edozein erabileretarako baliatzea.

105. artikulua. Batzar Nagusiak izanen du, mendizainen bidez, borda, korta eta bertzelako eraikinetan egiten diren jarduerak zaintzeko ahalmena, egoera egokian mantentzen direla eta hondakinak biltzen direla kontrolatzeko, aziendaren parasitoak hiltzean edo gisako jardueretan sortzen ahal den kutsadura sahisteko. Nekazaritza-eraikinen arduradunen betebeharra izanen da hondakinak jasotzea eta sarbiderako bideen mantentzea.

XIV. KAPITULUA

BERTZELAKO ERAIKINAK HERRILURRETAN

Artículo 106. Batzar Nagusiak obra, instalazio eta zerbitzuetarako herrilurren aldi baterako okupazioa hitzartzen ahalko du, dagokion kanon baten ordainketaren bidez, lanpostuak sortzen dituzten industria-instalazioen eraikitzearen kasuan eta Baztan haranarentzat beharrezkoak diren kirol, kultura, osasun edo aisialdi instalazioaren kasuan, bertzeak bertze, betiere aipatutako proiektuak jendartearentzat interesgarriak direnean eta indarra duen araudia betetzen duten bitartean.

XV. KAPITULUA

IHZIA ETA ONDDO ETA ZIZEN BILKETA

107. artikulua. Ihizia Nafarroako Komunitatean dagoen foru legeen arabera arautuko da.

108. artikulua. Batzar Nagusiak ihizia arautuko du jarduera honekin loturiko eraginei dagokienez, hala nola hondakinak botatzea, postuen paisaia-eragina...

109. artikulua. Antolaketa Zinegetikorako Plangintza batek arautua behar duen barrutiaren adjudikaziodunarena izanen da ihiziak sortzen dituen kartutxo eta bertzelako hondakinak garbitzeko ardura. Mendizainek urtero eginen dute barrutian ikuskapen bat eta horretan oinarrituriko txosten bat idatziko dute Batzar Nagusiarentzat.

110. artikulua. Baztango herri mendietan onddo eta ziza mota ugari sortzen dira. Produktu hauen bilketak batzuetan mendietara sobera jende etorrazten du eta horrek natur ingurunearen andeatzea ekartzen ahal du.

Batzar Nagusiaren irudiko, espezie hauen mantentzea bermatu, natur inguruneke kaltea ekidin eta mendia behar bezalako garbiketa baldintzetan mantendu behar da eta horrela gertatzeko neurri egokiak hartuko dira, 13/1990 Foru Legeak ezrritakoaren arabera.

XVI. KAPITULUA KIROL, AISIA ETA JOSTETA JARDUERAK

111. artikulua. Gaur egun gero eta handiagoa da gizarteak naturarekin hartu emanetan sartzeko eskaera, bertan kirol, aisia eta josteta jarduerak egiteko. Jarduera hauek natur baliabideen aprobetxamendu iraunkorak eskatzen dituen errespetu eta kontrolik gabe egiteak eragin negatiboak, hainbatetan itzulezinak, ekartzen ahal ditu. Eragin hori murrizteko, Batzar Nagusiak kasu bakoitzean hartu beharreko neurriak aztertuko ditu.

XVII. KAPITULUA URA ETA UREZTAKETAK

112. artikulua. Herrilurra ura bildu eta eramateko okupatzeak baimena beharko du. Horretarako auzokoak egin beharreko lanen eta aprobetxamenduaren dokumentazio teknikoak aurkeztu beharko du honako hauek bilduz: Memoria eta lurren kokapen planoak eta okupazio planoak.

113. artikulua. Herrilurraren okupazioa aprobetxamendu berezi gisa baimentzen da. Baimena mantenduko da emateko orduan zeuden baldintzak diren bitartean eta aurreko puntuan aipatzen den dokumentazio teknikoan deskribatutako aprobetxamenduetarako bakarrik ematen da. Hamabortz urtez iraunen du eta bertze bortz urtez luzatzen ahalko da. Instalazio horietan jarduna eteten delarik, lurra herri-erabilerara, mugarik gabe, itzuliko dira eta, hortaz, eskatzaileak edo haren ondorengoak instalazio guztiak kendu beharko ditu bere kargura eta bere bizkar. Hori ez badu egiten, Baztango Batzar Nagusiarena izatera pasatuko da.

114. artikulua. Baztango Udalarri herri ondasunen aprobetxamendu eta gozamenarengatik eskubide eta kanonak arautzen dituen ordenantzan ezarritako kanona ordainduko zaio.

115. artikulua. Baimen honek ez du deus ikustekorik sustatzaileak erakunde eskudunei eskatu behar dien edozein motatako bertzerekin. Halaber, instalazioaren erantzukizuna eskatzailearena izanen da soilik.

116. artikulua. Baimena baldintza hauekin egonen da loturik:

1.-Eskatzaileak obrak edo ondorengo konponketek ukituriko edozein egitura (bideak, erretenak...) egoera onean paratu beharko du.

2.-Udalak herrilur horietan hodiak ukitzen dituen edozein lan egiten badu, eskatzaileak beharrezkoak diren aldaketak egin beharko ditu. Gastuak bere bizkar izanen dira eta ez du kalte-ordainik hartzeko eskubiderik izanen.

3.-Baimenaren epe barnean Udalak, modu justifikatuan, hodiak hornidura zehatz baterako erabiltzeko eskatzen badu, eskatzailea uztera beharturik egonen da.

117. artikulua. Iturri, aska, istil eta ugaldetatik hurbil eta berrehun metrotik behera, arras debekaturik dago autoak garbitzea, mota guztietako hondakin, biltegi eta sugarri, pestizida, olio eta, oro har, produktu kimikoak, eta nekazaritza eta abeltzaintza tratamenduetako produktuak dituzten bidaiak garbitu, utzi eta isurtzea.

XVIII. KAPITULUA ERAUZTE JARDUERAK

118. artikulua. Nafarroako Gobernuak eta Baztan Haraneko Udalak egindako txostenetan oinarriturik, pertsona fisiko edo juridiko batek erauzte jardueraren bat instalatu edo handitzeko proiektua aurkezten duenean, Batzar Nagusiak dagokion lurra okupatzeko baimena eman edo ukatuko du.

XIX. KAPITULUA OIHAN SUTEAK, SASIAK, BELARRAK ETA UZTONDOAK ERRETZEA

119. artikulua. Arras debekaturik dago zuhaitzak dauden herrilurretan sua, edozein motatakoa delarik ere, piztea.

120. artikulua. Auzoko batek, iratzea mozten duen eremua garbitzeko edo bertze gisako arrazoi justifikagarri batengatik, zuhaitzik gabeko herrilur zati bat erretzeko beharra baldin badu, arrazoiak eta erreketak eginen duen lekua zein diren azaldu beharko du eta kontrolpeko erreketak egiteko baimena eskatzeko indarra duen mendi-araudiak ezarritakoa bete beharko du.

121. artikulua. Sute bat pairatu duen lur-eremua aziendarentzat mugatua izanen da 5 urte baino laburragoa ez den denbora tarte batez (500 kotatik goiti denbora tarte 10 urtera luzatzen da). Alta, Batzar Nagusiaren esku izanen da, gertatutakoaren azterketa bat egin ondoren eremua mugatuko den edo ez eta denbora tarte zein izanen den erabakitzeko ahalmena.

XX. KAPITULUA MENDIKO BIDEAK ETA PISTAK

Gaur egun Baztango landa bide publikoen sarearen erabilera, indarra duen araudiari jarraikiz arautzen duen ordenantza bat dago, Baztango Udalak 2001eko otsailaren 16an onetsia eta ordenantza hauek bere egiten dutena.

122. artikulua. Landa bideetako kategoriak.

Baztango landa bide publikoak, duten erabilera nagusiaren arabera, ondoko kategoria hauetan sailkatzen dira.

1.-2 metro zabal edo gehiago duten bideak.

a) Auzoetako bideak, nagusiki auzo talde batek batera erabiltzen ditu, beren etxeetara edo beren nekazaritzako, abeltzaintzako eta/edo oihangintzako ustiapen pribatuetara joateko.

b) Baserrietako sarbideak, jeneralean aurrekoen adarrak. Jendea bizi den baserrietara eta ustiapen hurbiletara joateko auzoko batek edo auzoko kopuru txikiak erabiltzen dituenak.

c) Pista nagusiak, normalean herri mendiaren gainean mugarrien lerrotik kanpora egoten direnak, eta erabiltzen direnak mendi alde handietara ailegatzeko nahiz inguruko herriekin komunikatzeko. Erabilera anitzetakoak izaten dira: oihangintza, abeltzaintza, turismoa, ihizia.

d) Bigarren mailako pistak. Herri mendian egoten dira, sare nagusia osatzen dute eta mendietara, oihantzetara, belaietara eta bertze tokietara ailegatzeko erabiltzen dira.

e) Adarrak eta ateratzeko bideak, sareko egitura finena. Jeneralean xede bakar baterako erabiltzen dira, egurra ateratzeko edo banakako lursailletara joateko, adibidez. Anitzetan noizean behin baizik ez dira erabiltzen, eta denbora luzez ibilgailuak ez dira bertan sartzen ahal.

2.-2 metro zabal baino gutxiagoko bide meharak. Bideak, orgabide zaharrak eta bidexkak, erabilera eta eginkizun bat baino gehiago dituztenak, lasterbideak eta turismorako bidexkak barne.

123. artikulua. Ibilgailu motordunekin ibiltzeko debeku orokorra. Debekaturik dago ibilgailu motordunekin pistetatik kanpoko lur irekian ibiltzea, bai eta bi metro zabal baino gutxiagoko pistetan barna ibiltzea ere, salbu eta nekazaritza, abeltzaintza eta oihangintza jarduerekin lotuak diren ibilgailuen kasuan.

124. artikulua. Auzoetako bideetan barna eta baserrietako sarbideetan ibiltzeko baimen orokorra. Lehendabiziko bi bide motarako (122. artikulua, 1. puntua, a eta b atalak) baimentzen da motozikletak eta motor ibilgailuak libreki ibiltzea.

125. artikulua. Gainerako pistetan ibiltzeko debekua. Baztango gainerako pistetan baimenik gabeko motor ibilgailuek debekaturik dute ibiltzea, salbu eta nekazaritza, abeltzaintza, oihangintza edo baimendutako bertze jarduerekin lotuak dauden ibilgailu eta beharren kasuetan.

126. artikulua. Baimenerako eskumena. Baztango pistetan barna ibiltzeko baimena Haraneko alkateak, Batzar Nagusiko presidente denak emanen du. Ez dute baimenaren beharrik izanen udalerrian ibilgailuren bat erregistraturik duten Baztango auzokoek. Baimenak aldi baterako eta tarte zehatzetarako izaten ahalko dira.

127. artikulua. Egur aprobetxamenduen garraiatzea. Egur aprobetxamenduetan, adjudikazioduna, jardunaren ondorioz, pistetan sorrarazten ahal diren kalte-galeren ordaina bermatuko duen fidantza askia paratzera izanen da behartua.

128. artikulua. Zerbitzu publikoak. Erakunde eta entitate publikoen ibilgailuek ez dute baimenik behar, beren eginkizunetan ari direnean.

129. artikulua. Ibiltzeko gehieneko abiadura. Ordenantza honetako 122. artikulua, 1. puntuan, a eta b ataletan, aipatzen dituen bideetan salbu, gehieneko abiadura 30 kilometrokoa izanen da.

130. artikulua. Pisten egoerari eta inguruabarrei egokituriko abiadura. Istripu arriskua eta oinezko, txirindulari eta aziendarendako eragozpenak murrizteko, gidariek abiadura doituko dute pendizetan eta tarte arriskutsuetan, azienda libreko inguruetan, oinezkoak direnean eta pistetan errautsa biltzen den aldi idorretan, eta beharrezko punturaino murriztuko.

131. artikulua. Debekaturiko jarduerak. Espresuki debekaturik gelditzen dira lehiaketak eta lasterketak, bai eta paseoan dabiltzanendako, txirindulariendako, etxeko abereendako eta basa-faunarendako arriskugarri suertatzen ahal diren gidatzeko manera muturreko guztiak. Udalak, salbuespen gisa, baimentzen ahalko ditu taldeka antolatutako motor-lehiaketa ofizialak eta turismo jarduerak, aitzinetik fidantza paraturik.

132. artikulua. Erabiltzaileen erantzukizuna. Erabiltzaileak pistetan sorrarazten dituzten kalteen kaiero izanen dira.

XXI. KAPITULUA FAZERIAK

133. artikulua. Arras debekaturik dago bertze jurisdikzioetako aziendak Baztango herrilurretan alhatzea, salbu eta elkarrekiko larre hitzarmenak dituztenetan. Hitzarmena dagoen kasuetan, alhatzea bakoitzak sinatu duen kontratuak dioenaren arabera arautuko da.

Beste jurisdizioetako abeltzainek fazerietan haien eskubideak baliatu aitzin, dauden osasun-betekizunak bete beharko dituzte.

134. artikulua. Baztan Haranak fazeria-hitzarmenak sinatzen ahal ditu inguruko herriekin.

XXII. KAPITULUA HERRILURRETAKO LURZATIEN TRUKATZEA

135. artikulua. Batzar Nagusiak herrilurren murrizketa saihesteko irizpidea defendatuko du, eta herrilurren sakabanaketa saihesteko zainduko du.

136. artikulua. Lurzati txikien desafekziorako prozedura.

1.-Lurzati txikiak trukatu ahal izateko desafekzioa lortzeko beharrezkoa izanen da Nafarroako Gobernuak lurzati horiek onura publikokotzat edo gizarte onurakotzat aitortzea, Batzar Nagusiak justifikatu ondoren bilatutako xedea ezin dela lortu lagapen edo zergen bidez, nahiz eta bi horiek izan lehentasunezko bideak. Lege horrek aipatzen dituen lurzatiak neurriak araudiaren bidez ezarriko dira, haien ezaugarri eta herri-ondarearen hedaduraren arabera.

2.-Jarraituko den prozedura uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak ezarritako honako hau izanen da:

a) Hasierako onespina Batzar Nagusiko kideen kopuru legalaren hiru-laurdenen gehiengoarekin.

b) Iragarri eta jendaurrean edukitzea hilabetez.

c) Erreklamazioen ebazpena Batzar Nagusiko kideen kopuru legalaren hiru-laurdenen gehiengoaren bidez.

d) Nafarroako Gobernuak onura publikokotzat edo gizarte onurarakotzat aitortzea eta onestea.

XXIII. KAPITULUA ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

137. artikulua. Artikulu hauetan ageri diren arau-haustek egiten dituztenek erantzukizun administratiboa izanen dute.

138. artikulua. Arau-haustek arinak edo larriak izaten ahal dira:

1.-Arau-hauste arinak izanen dira: ordenantza hauetan ezarritako manuak ez betetzea, herrilurrari kalte edo domaia sortu ez bazaio ere.

2.-Arau-hauste larriak dira: arau-hauste arinak berriz egitea eta herrilurretan aldaketarik eragiten duten arau-haustek egitea eta beti sua sorraraztea mendian.

3.-Berrizkatura izanen da arau-haustea egiteko tenorean, 139. artikuluan ezarritako arau-haustea dela kausa, Batzar Nagusiak emandako ebazpenaz zehapena ezarri zaionetik hiru urte ez badira iragan.

139. artikulua. Arau-haustek dira:

1.-Emandako erabilera aldatzea edo auzo-aprobetxamenduak ordenantza hauetan ezarritako baldintzak bete gabe egitea.

2.-Haraneko herri mendietan okupazioa egitea Batzar Nagusiaren baimenik izan gabe.

3.-Herri mendietako zuhaitzak edo egurra moztu, erauzi, kaltetu, atera edo haietaz jabetzea beharrezko titulu administratiborik izan gabe.

4.-Herri mendietan edo herrilurretan azienda alhatzera eramatea, debekaturik badago edo Batzar Nagusiak ezarritako arauak bete gabe.

5.-Aprotxamenduei dagozkien kanonak ez ordaintzea.

6.-Adjudikatutako loteak bertzeei saltzea. Urratzaileak adjudikaturikoaren balio osoaren bikoitza ordaindu beharko du isun gisa, eta ez zaio bortsu urtetan loterik emanen.

7.-Herri mendietan edo herrilurretan erretzea baimenik izan gabe. Oihanberritze artifizial edo naturaletik hurbil egindako urraketak goreneko mailan aplikatuko dira.

8.-Herrilurretan gai solidoak botatzea edo likidoak isurtzea baimenik izan gabe.

9.-Mendiko pistak erabiltzea Batzar Nagusiak eta mendi bideez eta pistez XX. kapituluak ezarritako baldintzak bete gabe eta, oro har, landa lanak ibilgailu motordunekin egitea. Ordenantza hau mendi bide eta pisten inguruan haustea isunarekin zehatuko da. Isuna ez da 300 eurotik goitikoa izaten ahalko, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 52. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Nork bere borondatez ordaintzen ez badu, premiamendu bidez eginen da isunen diru-bilketa.

10.-Ordenantza honetan ezarritakoa hausten duen bertze edozein gertakari edo ekintza.

140. artikulua. Hauek dira arau-haustek egiteagatik izanen diren zehapenak:

1.-Arau-hauste arinak 50etik 600 euro bitarteko isunarekin zehatuko dira. Arau-hauste larriak 600tik 6.000 euro bitarteko isunarekin eta auzo aprobetxamenduetako titularra izateko 1etik 10 urte bitarteko epean ezgaitzearekin zehatuko dira.

2.-Isunen zenbatekoa edo ezgaitze epea finkatzeko kontuan hartuko dira arau-haustearen asmoa edo arduragabekeria, eraginiko kalte eta domainen munta eta aldaturiko errealitate fisiko konpontzeko posibilitate handiagoa edo txikiagoa.

3.-Isuna ez da sekula arau-haustea egitetik ateratako mozkin baina txikiagoa izanen eta arau-haustek erdietsitako mozkinaren bikoitzaren parekide izaten ahalko da.

4.-Arau-hauste arinak bi hileko epean eta larriak hamabi hileko epean baliogabetuko dira.

5.-Alkatetzak izanen du zehapen arinak paratzeko eskumena; Haraneko Udalak zehapen larriak isun ekonomikoarekin paratzeko, eta Batzar Nagusiak izanen du eskumena auzo aprobetxamenduetako titularra izateko ez-gaitasuna proposatzen denean.

6.-Zehapenak unean-unean indarra duen prozedura administratiboari jarraikiz ezarriko dira.

7.-Edozein arau-hausteren kaieroa, ezarritako isuna ordaintzeaz gainera, sorrarazitako kalte eta domaiengatik kalte-ordaina ordaintzera ere izanen da behartua.
